

3. FINAL-LAURDENAK. BILBO **Aurkezlea: Maite Berriozabal**

8KO NAGUSIA

Maddalen Arzallus eta Julio Soto

Asteko erosketa egitera joan zarete elkarrekin. Ordaintzeko garaia iritsi denean, gurditxotik gauzak kentzen hasi behar izan duzue!

Asier Otamendi eta Amaia Agirre

Hamar urte daramatzazue alargun. Hitzordu antolatua edo itsua izan duzue ezezagun banarekin. Hitzordua bukatu, eta etxera bueltan zoazte biok.

Iñaki Zelaia eta Jexux Mari Irazu

Bertsolari banaren gurasoak zarete. Saioa hasi eta berehala, aretotik atera zarete biak.

8KO TXIKIA

Julio Soto eta Asier Otamendi

Zuk Julio Soto negozio txiki bat duzu, eta Asier Otamendi zure langilea da. Asier Otamendik nahi duena eta nahi duenean egiten du beti, eta zuk Julio Soto ezin duzu gehiago jasan.

Jexux Mari Irazu eta Maddalen Arzallus

Sukaldaritza-ikastaroa antolatu dute herrian. Zu Jexux Mari Irazu hara joan zara, eta hara non ikusi duzun Maddalen Arzallus zure amona koaderno eta boligrafoa eskuetan dituela.

Amaia Agirre eta Iñaki Zelaia

Amaia Agirre, Iñaki Zelaia kazetariak ordubeteko elkarrizketa egin zizun telebistarako. Elkarrizketa hartatik, 20 segundoko zati txiki bat baino ez dute eman.

PUNTUARI ERANTZUNAK

Maddalen Arzallus

Zaharra zara Bilbo / Bilbo zaharra zara
Gugenheim, Zubizuri / eta Euskalduna
Zazpi Kaleek dute / xarma berezia

Julio Soto

Madril olinpiadetan / kanpo geratu da
Gaur egun olinpiadak / negozio galanta
Euskal selekzioa / hurrengo urratsa

Asier Otamendi

Autobusa, taxia / metroa ta trena
Bizikletak dabilta / Bidegorrietan

Garraio publikoa / garestia omen

Amaia Agirre

Surfisten topaleku / omen da Mundaka
Ezin surfean egin / olaturik gabe
Trebea izan behar / zutik irauteko

Iñaki Zelaia

Telebistan aspaldi / zenbat aldaketa
Goenkale oraindik / ez zaigu bukatu
Arralden gertatzen da / aspaldi denetik

Jexux Mari Irazu

Athletik hasi behintzat / ederki hasi da
Errege Kopa dute / guztiek buruan
Botatzekoak dira / laster katedrala

10EKO TXIKIA

Julio Soto eta Iñaki Zelaia

Zu Julio Soto banketxe bateko langilea zara. Gaur goizean, banketxea irekitzera joan zarenean, Iñaki Zelaia eskalea aurkitu duzu ate ondoan lo.

Maddalen Arzallus eta Amaia Agirre

Ohera sartu, eta goxo-goxo jolasean hasi zarete. Bost minutu pasa, eta bizkarra eman dizu Amaia Agirrek, Maddalen Arzallus.

Asier Otamendi eta Jexux Mari Irazu

Asier Otamendi semea/alaba eta Jexux Mari Irazu aita/ama zarete. Parrandara irten zara gaur, Asier Otamendi, eta Jexux Mari Irazu ama/aita etorri zaizu bila. Autoan sartu orduko ohartu zara aitaren/amaren alkohol-usainaz.

KARTZELA

Denbora daramazu ilunabarrean etxetik irten eta egun-argiz itzultzen. Ezin duzu horrela jarraitu.